2/09

irizpena

Enplegu eta Gizarte gaietako Sailburuak

LAN MERKATUAREN PROSPEKZIOENTZAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN 2008KO UZTAILAREN 30EKO AGINDUA ALDATZEKO

eman duen aginduari buruzkoa

Bilbo, 2009ko azaroaren 13a

EGAB
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Consejo Económico y Social Vasco

irizpena 2/09

I. AURREKARIAK

2009ko urriaren 22an, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko idazkia sartu zen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Txostena eskatu ziguten, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2008ko uztailaren 30eko agindua aldatzeko emandako aginduari buruzkoa. 2008ko aginduan lan merkatuaren prospekzioentzako laguntzak arautzen dira, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1d) artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hauek dira agindu honen aurrekariak:

2/09 *i*

- III Enplegu Plana, 2007-2010. Horren bidez lan merkatuaren prospekzioa aurrea hartzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko bide gisa hartzen da, besteak beste.

- 2008ko uztailaren 30eko agindua. Horren bidez laneko merkatuaren prospekzioentzako laguntzak arautzen dira. Eta horren gainean, Euskadiko EGABek irizpena eman zuen, 2008ko ekainaren 11an (6/08 Irizpena). Baita ebazpen hauek ere:

    - 2008ko uztailaren 30ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearena. Horren bidez 2008ko ekitaldiko lan merkatuko prospekzioen laguntzen deialdia argitaratu zen.

    - 2008ko uztailaren 29ekoa, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearena. Horren bidez 2009ko ekitaldiko lan merkatuko prospekzioen laguntzen deialdia argitaratu zen.

Berehala, kopia bat bidali zitzaien Batzordeko kide guztiei, beren proposamenak eta iritziak eman eta Laneko Batzordeari haren berri emateko. Hori guztia Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen funtzionamendu araudiak ezartzen duenaren arabera.

Gizarte Garapeneko batzordea 2009ko urriaren 30ean bildu zen, irizpen aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatze aldera. Egun berean, batzordeak irizpen proiektua onartu zuen, eta Euskadiko EGABeko osoko bilkurara eraman zen, 2009ko azaroaren 13an eta aho batez onartzen da.

II. EDUKIA

Aginduari buruzko testuak zioen azalpena, 2 artikulu eta bukaerako bi xedapen ditu.

Zioen azalpena

Lan merkatuko prospekzioarentzako laguntzak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailburuak 2008ko uztailaren 30ean emandako agindu bidez arautzen direla dio. Eta horien deialdia dago urtero, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen ebazpenak hala aginduta. Horrela, garatzen diren ekitaldiko azaroaren 30ean betearazpenerako gehienezko epea eta diruz lagundutako prospekzio jardunen justifikazioa ezarri dira. Ondoren, adierazi da, batzuetan, azaroaren 30a data jartzea oso zorrotza izan daitekeela, eta oztopo bihur daitekeela Urteko Prospekzio Plana eta Ekitaldiko Plan Eragilea betetzerako orduan. Izan ere, lortu nahi diren helburuak ez datoz bat proportzioan, epe horretan lortu nahi diren onura potentzialen gaitasunarekin alderatuta.
Horregatik, laneko merkatuaren prospekzioetarako laguntzen deialdien diseinua malguagoa egitea beharrezkoa dela ondorioztatu da. Horrela, deialdiaren unean baloratuko da burutu behar diren jardunen dimentsioa, eta horiekin bat datorren betearazpen epea ezarriko da. Era berean, epea luzatzeko aukera jasoko da, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordearen erabakiarekin bat. Luzapena ofiziozkoa zein interesdun alde batek eskatua izan daiteke. Horretarako, justifikazio egokia ematen duten baldintza bereziak jazo behar dira, baita prospekzio planetan aurreikusitako helburuak betetzeko nahitaezko egiten dutenak ere.

Xedapenak

1 artikuluak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko uztailaren 30eko aginduko 6. artikuluko 1 paragrafoa aldatzen du. Izan ere, urte bakoitzeko azaroaren 30a jardunen bukaera eta justifikaziorako epe gisa kentzen du.
2 artikuluak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2008ko uztailaren 30eko aginduaren 9. artikuluko 1 paragrafoa aldatzen du. Jardunak bukatu eta justifikatzeko epe muga urte bakoitzaren azaroaren 30a izatea kendu du. Era berean, epea luzatzeko aukera ematen du, egoki justifikatuta, betiere; hala erabaki baitu Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordeak.
Lehenengo azken xedapenak dio administrazioarekiko errekurtsoa jarri daitekeela aginduaren aurka, hura EHAAn argitaratu eta hurrengo egu-

netik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean. Eta Bigarrena lehenengoan indarren sartzeari buruz mintzo da.

III. GOGOETAK

III.1 Gogoeta Orokorrak

Agindu proiektu honek lan merkatuko prospekzioen laguntzak arautzeko 2008ko uztailaren 30eko agindua aldatzen du. Honen jatorria 2007-2010 Enplegu Planean dago.

Euskadiko EGABek eman zuen, jada, 2008ko uztailaren 30eko aginduari buruzko irizpena (6/08). Bertan adierazi zuen Lan Merkatuaren Prospekzioen Sistema ezartzea funtsezko elementutzat jotzen zuela, eta sakon garatu behar zela adierazi zuen. Halaber, aipatu agindua aurkezteko Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak planteatutako ekimena begi onez ikusi zuen.

Hala ere, balorazio horren kaltetan izan gabe, diru-laguntzetarako aurreikusi den araubide espezifikoak hainbat zalantza eragin zizkigun bere garaian, eta oraindik ere, baditugu.

Areago, 6/08 irizpenean egindako gogoeten artean, Euskadiko EGABek izaera bereziko bat nabarmendu zuen; zehazki, azaroaren 30a jardunak bukatzeko muga gisa ezartzeari buruzkoa. Hitzez hitz, hala zioen:

"Hurrengo urteetan, agindu hau goizago argitaratzen bada, epea zuzena izan liteke. Aitzitik, agindu hau argitaratzeko aurreikusi daitekeen data aintzat hartuta, abian den urterako helburua lortzeko zaila dela uste dugu, eta horren gaineko berrikusketa egitea proposatzen dugu.

Ondoren, egungo aldaketa proposamena egokia dela uste dugu. Horren bidez diruz lagundutako jardunak burutzeko epeak malguagoak egingo dira, jardun horren irizpideak sailburuordetzaren ebazpen bidez ezartzea baimenduko delako.

Era berean, ondo ikusten dugu hasieran ezarritako epea luzatu ahal izatea, betiere, laguntza jasotzen duen erakundeari lepora ezin dakizkiokeen arrazoiak tarteko badira.

Baina batzorde honek urrunago jo du, eta gure aburuz, une egokian egon gaitezke berrikuspen zabalagoa planteatzeko. Horretarako aintzat hartu ditugu 6/08 irizpenean azaldutako gogoetak -honekin batera erantsi ditugu-.


IV. ONDORIOAK

Euskadiko EGABek uste du Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuak lan merkatuaren prospekzioen laguntzak arautzeko 2008ko uztailaren 30eko agindua aldatzeko izapidetu duen agindua egokia dela. Hala ere, aholkularitza organo honek egindako gogoetak aintzat hartzea nahi du.

Bilbon, 2009ko azaroaren 13an.

O.E. Lehendakaria
José Luis Ruiz García

Idazkari nagusia
Javier Muñecas Herreras



Eranskina

6/08 Irizpena

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Aginduari buruzkoa, lan-merkatuan azterketa egiteko laguntzak arautzen dituena

Bilbon, 2008ko ekainaren 11an

I. AURREKARIAK

2008ko apirilaren 9an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzak bidalitako idazkia sartu zen eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuaren Aginduaren txostena eskatzen zuen. Aginduak lan-merkatuan azterketak egiteko laguntzak arautzen ditu. Prozedura halakoa da 9/1997 Legeak, ekainaren 27koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizartea Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.
Berehala Batzordeko Bilkura Osoko kide guztiei dokumentuaren kopia bidali zitzaien beren proposamenak eta iritziak bidaltzeko eta horiek dagokion Lan Batzordeari luzatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoarekin bat.
Gizarte Garapenaren Batzordea 2008ko maiatzaren 7an bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Maiatzaren 13an hurrengo Irizpen Proiektua onartzea erabaki zuen eta 2008ko ekainaren 11an Euskadiko EGABren ospatutako Osoko Bilkuran aho batez onartzen da.

II. EDUKIA

Aginduaren testuak Zioen Azalpena, 17 artikulu, Xedapen Osagarria eta lau Azken Xedapen ditu.
Zioen Azalpena
2007-2010 III. Enplegu Planak lan-merkatuaren azterketa egituratzen du erabakiak hartzeko aurrerapen- eta laguntza-bitarteko bezala, enplegu-politiken proposamen eta formulazio dinamikoan.
Hala, produkzio-ehunaren eskaera eta eskaintza hobe moldatzea lortuko da eta langabetuek behar duten prestakuntza-errealitatea hobe egokituko da.
Azterketa-zerbitzua lan-merkatuaren informazio osoa eta eguneratua eskuratzeko sortu zen eta bere helburu nagusia honakoa da: Euskadin lan-merkatuaren egoera, funtzionamendua eta joerak ezagutzea, bai eremu geografikoen arabera bereizita, bai sektoreka eta pertsona-taldeen arabera, enplegu-politiken arloan hausnarketa estrategikoa egiten laguntzeko informazioa lortzearren.

Ondoren, Agindua enplegu-politika aktiboetan diru-laguntzak emateko arau-tresna bezala egituratzen dela aipatzen da. Horren bidez erakundeen eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren arteko lankidetza-mekanismoak ezartzen dira Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak urtero egindako Planaren esparruan lan-merkatuaren azterketarako jarduerak egiteko. Azterketa-jarduerak egiteko laguntzak arautzen dira ere bai.
Era berean, azalpenean helburu bereziak eta zerbitzuaren ezaugarriak zehazten dira. Honako hauek dira:
Helburu bereziak:
Ezaugarriak:

- Lortu beharreko informazioaren ezaugarriak definitzea, azterketaren fitxa teknikoa eta aztertu beharreko enpresekin jardueraprotokoloa.
- Enplegu-eskaintzen eta –eskarien diagnostikoa egitea, okupazioak eta ogibide emergenteak eta desagertzeke daudenak, prestakuntzaren eta enpleguaren moldaera eraginkorra.
- Enpleguan eta prestakuntzan eragina duten gertaera ekonomikoak aztertzea.
- Lan-merkatuaren portaera eta egoera ezagutzen uzten duten informazio-fluxuak bermatzea.
- Enplegu-politiken exekuzioa eta emaitzak aztertzea.
- Lortutako informazioa landu eta prozesatzea eta emaitzak eta ondorioak hedatzea.

Ezaugarriak:

- Malgutasuna: lan-merkatuaren eta informazio beharren egoera aldakorrei egokitzeko gaitasuna duen zerbitzua.
- Lurraldetasuna: nahi den lurralde-eskalara bereiztea.
- Taldeentzat.
- Erabakiak hartzera bideratua.
- Informazioaren informatizazioa eta automatizazioa behar diren analisi-prozesuak egiteko.

Azalpena amaitzeko, diru-laguntzei dagokienez, Agindua 10.25. artikuluaren eskumen-titulu orokorraren barruan sartzen da, 9.2., 10.12., 10.39. eta 12.2. artikuluekin harremanetan; horiek guztiak Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren barruan daude.

Xedapenak
1. artikuluan Aginduaren xedea aipatzen da, hau da, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak urtero egindako Planaren esparruan lan-merkatuan azterketa-jarduerak egiteko erakundeek eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak lankidetzan jarduteko mekanismoak zehazten

dira. Era berean, jarduerak egiteko laguntzak arautzen dira.
2. artikuluak Urteko Plana eta Plan Operatiboak aipatzen ditu.
3. artikuluan deialdi bakoitzak zehaztutako azterketa-jarduerek diru-laguntza jasoko dutela adierazten da eta azterketa-prospekziotzat ulertzen dena definitzen da. Azterketa-jardueratzat jotzen da xede horrez eskuratutako aplikazio informatikoan enpresen eta erakundeen giza baliabideen egoerari eta beharrei buruz fitxa teknikoa bete eta mekanizatzea, harremanetan jarri eta bisita egin ondoren, EGAILAN S.A.k aldez aurretik xedatutako protokoloaren arabera.
4. artikuluak diru-laguntzaren onuradunak zehazten ditu eta bete behar dituzten baldintzak xedatzen ditu. Zehatz-mehatz esanda, diru-laguntzaren onuradunak izango dira, betiere honako baldintzak betetzen badituzte: Tokiko garapenean diharduten erakundeak, hau da, Tokiko Garapen Agentziaren, Behargintzaren, Mankomunitateen edo Koadrilen forma hartzen duten guztiak eta Azterketa Zerbitzua duten Udalak.
Gizarteak baztertzeko arriskua edo baztertuak dituen taldeei bakarrik lan-zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeak, baita enpresa-klusterrak ere Plan Operatiboen ondorioz azterketa-jarduerak egiteko. Helburuak baztertze arriskua duten taldeekin edo talde baztertuekin edo klusterraren enpresa-jardueraren sektorearekin zerikusia izan behar du.
5. artikuluan diru-laguntzaren zenbatekoa arautzen da, hau da, 92 € enplegu-azterketaren fitxa tekniko bakoitza bete eta mekanizatzeagatik. Halaber, muga ezartzen da: urtean 480 fitxa tekniko egin ditzake azterketa-lanetan lanaldi osoan diharduen pertsonak.
6. artikuluak laguntzen deialdiari, eskaerak aurkezteko epeari eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko zehaztasunak ematen ditu.
7. artikuluak, lehenik eta behin, ebazteko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza dela zehazten du; bigarrenez, diru-laguntzak lortu eta ebazpenerako prozedura azaltzen du; hirugarrenez, ebazpenak administrazio-bidea ez duela amaitzen eta goran jotzeko errekurtsoa jar daitekeela; azkenik, publizitatea aipatzen da.
8. artikuluan diru-laguntzaren ordainketa eta justifikazio-dokumentazioa arautzen da.
9. artikuluak jarduerak betetzea eta justifikatzea arautzen du. Nolanahi ere, garatzen diren ekitaldiko azaroaren 30a ezingo da gainditu.
11. artikuluan erakunde onuradunen betebeharrak xedatzen dira eta 12. artikuluan laguntzak eman eta ordaintzeko baldintzak.
12. artikulua aurrekontu-eskuragarritasunari buruzkoa da, hau da, Agindua betetzera bideratuko diren bitarteko ekonomikoak xedatzen dira.
13. artikuluak erakunde onuradunek araudia ez badute betetzen izandako ondorioak arautzen dira eta 14. artikuluan laguntzak itzultzeko prozedura aurreko artikuluan aurrez ikusitako betetzen ez bada.

15. artikuluan honakoa aipatzen da: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak, ofizioz edo pertsona interesatuak eskatuta, erakunde kolaboratzaileei ikuskapenak egiteko aukera duela, onartutako jarduerak araudiarekin bat egiten direla egiaztatzeko. 17. artikuluan diru-laguntzaren erakunde onuradunek ikuskapenaz arduratuko diren pertsonei instalazioetan sartzeko erraztasunak emango dizkiete. Halaber, diru-laguntza jaso duten jarduerekin zerikusia duen dokumentazio guztia eskuratuko diete, hala eskatuz gero.
17. artikuluak bildutako informazioaren titulartasuna Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzari dagokiola aipatzen du eta horrek erakunde kolaboratzaileen esku lortutako emaitzak jarriko ditu. Era berean, erakundeak idatziz baimena eskatu beharko dio Enplegu eta Prestakuntza Zuzendariari informazioa barruan erabiltzeko eta publiko egiteko.
Xedapen Osagarriak EGAILAN, S.A. aitortzen du Erakunde Kolaboratzaile bezala Aginduan aurrez ikusitako diru-laguntzak kudeatu eta ordaintzeko.
Lehenengo Azken Xedapena Aginduaren arau-garapenari buruzkoa da; Bigarrena zenbatekoak eguneratzeari buruzkoa; Hirugarrena Aginduaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jartzeari buruzkoa eta Laugarrena indarrean sartzeari buruzkoa.

III. GOGOETAK

Agindu-proiektua 2007-2010 Enplegu Planean oinarrituta dago eta, zehatz-mehatz esanda, azterketaren arloan aurreikuspenak betetzeko da. Enplegu Planari dagokionez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailari 2007ko urrian bidalitako jakinarazpena onartu zuen eta bertan aipatu Planaren izapidetze-prozesuari buruz kideek egindako oharrak azaltzen ziren. Batzordeko kideek ohartarazten dute alegazio berezietan jasotako gogoetak, txosten honetan agertzen direnak, ez direla inolaz ere interpretatu behar Enplegu Planaren zeharkako onarpen bezala.
Hala eta guztiz ere, lan-merkatua optimizatzeko, hau da, enplegua ematen dutenek behar dituzten profil profesionalak aurkitzeko eta langileek enplegugarritasuna gehitzeko, produkzio-sistemaren beharrak epe motzean, ertainean eta luzean zein izango diren sakonean ezagutu behar da. Horregatik, Batzordearen iritziz, Lan Merkatuaren Azterketa Sistema ezartzea oinarrizko elementua da eta sakonki garatu behar da. Hala, positiboki balioztatzen du Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak2007-2010 Enplegu Plana bultzatzeko planteatutako ekimena eta egin nahi den garapen legegilea.

2007-2010 Enplegu Planak aurrez ikusten du “Lan Merkatuaren Azterketa” Enplegu Politiken Tresna bat bezala eta, zehatz-mehatz esanda, hurrengo moduan definitzen du “prozeduren, metodologien eta lan-merkatuko analisi-sistemen multzoa enpresa-ehunarekin eta bestelako gizarte-eragileekin etengabeko kooperazioan eta elkarrizketan egina; enpresetan giza baliabideen behar kuantitatibo eta kualitatiboei buruz egiazko aurreikuspenak egin daiteke epe laburrean eta ertainean, baita lehiakortasuna laguntzeko besteak ere; laburbilduz, asetzeko enplegu-politiketatik ekintza ahalbidetuko du”.

Baina, ekimen legegileari buruzko balioztapena alde batera utzita, Aginduan aurrez ikusitako diru-laguntzen erregimenaren erregulazio bereziak aukera-zalantzak sortzen dizkigu.

Lan Markatuaren Azterketa Sistema aldez aurretik definitu eta erregulatzearen beharra

2/09 i

Euskadiko EGABren iritziz, azterketa-jarduera Enplegu Politika Eraginkorrekiko beharrezkoa eta atxikia da eta egitura-izaera izan behar du. Horregatik, faltan botatzen dugu Azterketa Zerbitzua arauz gehiago garatzea. Gure ustez zerbitzuak Aginduaren xede den arloan zerikusia duten gizarte-eragileekin lankidetza aurrez ikusi behar du.

Ondorioz, azterketa-ekintzak egiteko erakundeei laguntzak arautu aurretik, Azterketa Zerbitzu bera arautu beharko litzatekeelakoan gaude. Hau da, helburuak, giza baliabideak, bitarteko teknikoak eta finantzarioak, metodologiak, produktuak, antolaketa eta funtzionamendua, beste erakundeekin harremanak, etab. zehaztu beharko lirateke.

Aurkezten zaigun Aginduak Zioen Azalpenean Azterketa Zerbitzuaren zeregina, helburu orokorra, helburu bereziak eta ezaugarriak aurrez ikusten ditu, baina artikuluetan berariazko aipamenik ez dugu aurkitzen.

Analisi-metodologiari dagokionez, Zioen Azalpenean informazio-bilketa kuantitatiboa eta kualitatiboa aipatu arren, Aginduaren garapenean, “Diru-laguntza jaso dezaketen Azterketa Ekintzak” 3. artikuluaren barruan, galdeketa bete eta mekanizatzeari buruzko aipamena bakarrik egiten da. Ildo horri jarraiki, erabili beharreko tresna kualitatiboak azaltzea interesgarria delakoan gaude.

Beste erakundeekin, sailekin edota eragileekin koordinazio edota lankidetzaren beharra

Enplegu Planean eta Aginduaren Zioen Azalpenean egokiro aipatzen den bezala, “azterketa prozeduren, metodologien, lan-merkatuaren analisi-sistemen multzoa da, enpresa-ehunarekin eta bestelako gizarte-eragileekin etengabe kooperatuz eta hitz eginez…”

Hala eta guztiz ere, ideia hori ondoren Aginduaren artikuluetan ez da islatzen. Ildo horri jarraiki, Euskadiko EGABren iritziz, komenigarria da Aginduaren 2. artikuluan berariaz arloan zerikusia duten gizarte-eragileen partaidetza Urteko Azterketa Planean eta Plan Operatiboetan aurrez ikustea.

Era berean, komenigarritzat jotzen dugu Gobernuko beste Sailekin (industria, nekazaritza, osasuna, hezkuntza, etab.) koordinatzea, zalantzarik gabe, lan-merkatuan eragina baitute, azterketa egokia eta erabilgarria egiteko informazio-iturri zehatzak eta helburuak definitzeko xedez.
Eta, azkenik, Estatistikaren Euskal Institutuarekin beharrezko lankidetza azaldu nahi dugu; azterketa-lanetan organo aholkularia izan behar du.
Azterketa-jarduerak kanporatzeari dagokionez
Gure iritziz, Azterketa Zerbitzuak egitura-izaera izan beharko luke Herri Zerbitzuaren barruan, une zehatzean azterketa-jarduerak kanporatzeko beharra alde batera utzi gabe, barruan ezin denean egin.
Hala eta guztiz ere, halako kasuetan hurrengo alderdiak azpimarratu nahi ditugu:

- Diru-laguntzen eragile aztertzaile onuradunak Aginduaren 4. artikuluko 1. puntuak zerrendatutako erakundeetara mugatzea. Hasieran, merkatuak sorta lehiakor askoz zabalagoa eskaintzen du; dena delakoa, baztertzeko argudioak izan daitezke, baina Aginduan ez dira agertzen; horregatik, azaltzen ez badira, eragile aztertzaileen panela planteatutakoa baino zabalagoa izan daiteke, betiere erakunde onuradunei eskatutako baldintzak betetzen badituzte.
- Zerbitzua kanporatzeak kalitatezko zerbitzua bermatzeko mekanismoak ez ditu aurrez ikusten. Jada azaldu dugu oso garrantzitsua dela langile teknikoen prestakuntza, motibazioa eta esperientzia lan-merkatuaren azterketa-zereginetan. Ondorioz, diru-laguntzak lehia-erregimenean deialdiak egin ostean emango direnez, langile teknikoaren profilak zehatzagoa izan beharko luke eta alderdi horiek kontuan hartu beharko lituzke.
- Ildo horri jarraiki, diru-laguntza lortzeko aztertzaile guztiek euskara menderatu behar dute. Eskakizun hori gure iritziz modula daiteke, Euskal Herri Administrazioan hizkuntza-araudian jasotzen den modura.

III.2 Gogoeta Bereziak

5. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta mugak
Galdeketa mekanizatu bakoitzeko prezioa eta galdeketen gehieneko kopurua finkatzea baino urrunago, aipagarriena diru-laguntzak diru-laguntza jaso dezakeen objektuarekiko izaera finalista izatea da.
3. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen Azterketa Jarduerak eta 4. artikulua. Diru-laguntzaren erakunde onuradunak
Baztertuta dauden taldeei edo baztertze-arriskua dutenei buruz, Batzorde honek bi artikuluetako bi ataletan aurrez ikusitakoa ez du ulertzen.
3. artikulua. 2. atala.

Laguntzen deialdian aztertu beharreko enpresak edo erakundeak multzokatu egingo dira azterketa-unitateak osatuz eta diru-laguntzaren eskaeraren helburua izango dira. Elkartzeko irizpidea, oro har, aztertu beharreko enpresak edo erakundeak kokatzen diren udalerrien hurbiltasun geografikoa izango da. Halaber, Plan Operatibo berdinaren barruan egoteagatik multzokatu ahal izango dira, helburuak gizarteak baztertua duen talderekin batekin edo gizarteak baztertzeko arriskua duen talderen batekin ala enpresa-jardueraren sektorearekin zuzeneko erlazioa izanez gero.

4. artikulua. 2. atala.

Era berean, erakunde onuradunak ahal izango dira, aurreko paragrafoan xedatutako baldintzak beteta, bakarrik lan-zerbitzuak eskaintzen badizkiete baztertuak dauden taldeei edo gizarteak baztertzeko arriskua dutenei. Halaber, enpresa-klusterrak sartzen dira. Diru-laguntzak Plan Operatiboen ondoriozko azterketa-jarduerak egiteko izango dira, helburua gizarteak baztertuak dituen taldeekin edo baztertzeko arriskua dutenekin edo klusterraren enpresa-jardueraren sektorearekin zerikusia badute.

6. artikulua. Deialdia, diru-laguntzaren eskaera, dokumentazioa eta aurkezpen-epea

Jarduerak amaitzeko epemuga urte bakoitzeko azaroaren 30a da. Hurrengo urteetan Agindua lehenago argitaratzen bada, epea zuzena litzateke. Dena den, Agindua onartuko den data kontuan hartuta, urte honetan helburua lortzea zaila iruditzen zaigu eta berraztertzea proposatzen dugu.

7. artikulua. Ebazteko organo eskuduna eta publizitatea. 6. atala.

Administrazioak eskaerak ebazteko 6 hilabeteko epea zehazten da. Epeak askoz laburragoa izan beharko luke, erakundeek aurrez ikusitako jarduerak egiteko ahalik eta denbora gehiena izateko. Nolanahi ere, 2008. urtean erabat ezinezkoa da erakundeek jarduerak azaroaren 30a baino lehenago egitea, Administrazioak eskaerak ebazteko 6 hilabete behar baditu. Hori kontuan hartu beharko litzateke.

IV. ONDORIOAK

Euskadiko EGABren iritziz, lan-merkatuan azterketak egiteko laguntzei buruz Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Aginduaren izapidetze-lanak egokiak dira, kontsulta-organoak egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2008ko ekainaren 11an

Lehendakariaren ikus onetsia
Antxon Lafont Mendizábal

Idazkari Orokorra
Javier Muñecas Herreras

